9) **KOSTU EGITURA**

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, hainbat gastu ditugu. Hala nola, alokairua, maileguak, soldatak, oinarrizko hornidurak, etab.

Enpresa bezala, gure errentagarritasuna bermatzeko diru sarrerak eta gastuak orekatuta egotea ezinbestekoa da.



1) Kostu finkoak: enpresako produkzio-mailarekin loturik ez dauden gastu totalen zatia dira. Antolatzen ditugun elkartruke kantitatea aldatuta ere, berdin mantenduko diren kostuak dira, esaterako, alokairua, maileguaren itzulketa, etab.

2) Kostu aldakorrak: enpresaren produkzio-mailarekin batera aldatzen diren gastuak dira. Antolatzen ditugun elkartruke kantitatearen arabera aldatuko dira. Adibidez, soldatak (langileek egindako lan orduen arabera).

| KOSTU FINKOAK | | KOSTU ALDAKORRAK | | GERO EGONGO EZ DIREN HASIERAKO KOSTUAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Alokairua** | 1000€ | **Hegaldiak** | 150-250€ | **Patentea** | 875€ |
| **BEZ** | %21 | **Bulegoko materiala** | 95€ | **Notarioa** | 300-500€ |
| **Maileguen itzultzea** | Mailegua 10.000€-koa bada eta 5 urtetan 2.374€ | **Publizitatea** | 300€ | **Merkataritza erregistroa** | 100-200€ |
| **Aseguru konpainia** | 400-700€ | **Txartel bidezko komisioa** | %1-4 inguru | | |
| **Garbiketa** | 2000€ | **Gizarte segurantza** | 90-110€ | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | **Interneta** | 40-60€ | |
| | **Soldatak** | 1.500€ | |
| | **Ura** | 300€ | |
| | **Telefonoa** | 10-20€ | |
| | **Argindarra** | 90-100€ | |

*Eskala ekonomiak: antolatutako bidaiak handitzen diren heinean, kostu aldakorreko banakako prezioa murriztu egiten da. Beraz, gero eta elkatruke gehiago antolatzea komeni da, prezio erakargarriagoak ezartzeko eta errentagarritasuna handitzeko.